

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Guardia zaharra touché

OSO UKITUTA dago Nafarroako elite politiko zaharra. Nekez pentsatuko zuen UPNk Nafarroako Kutxaren auziak bere agintaritzaren ere horren kolokan jarriko zuenik. Baina hala da eta, ezker-eskuin, herritarrak gogaituta eta suminduta daude.

UPN eta PSNko politikarien dieten azken aferak gorenera eraman du haserrearen langa. Eta UPNko agintari eta politikarien latsa ere bai. Hasieran dietak ondo kobratutakoak ziren, beren lanaren ondorio izateaz gain, soldatak osatzeko balio zuten, batzuen esanetan. Orain oparotasunaren garaiko fruitu gisa saldu ditu Yolanda Barcinak, baina gaur egunerako egokiak ez direla zehaztuz. Orduan, ongi kobratuak baziren, zergatik itzuli dirua orain? Erantzuna Alberto Catalánek eman du *Diario de Navarra*-n, ez dago arrazoi moralik, judizialak baizik: “Aholkulariek gomendatu diete Iraunkorreko dietak itzultzea”.

UPNren kongresuari begira, dirua itzuliz Barcinak irudi kolpe ederra eman dio Alberto Cataláni, eta hau defendatu egin da, baina Miguel Sanz ere zipriztinduz (Sanz izan zen dirua itzultzen zuela iragarri zuen lehena).

PSN barne, oposizio osoak bat egin du Legebiltzarrean Barcinaren dimisioa eskatuz. Oraingoan, alabaina, dimisio hori parlamentuari baino gehiago egongo da igandeko UPNren kongresuko emaitzei begira. PSOEko idazkari nagusi Alfredo Pérez Rubalcabak ere, joan den astean Nafarroara egindako bisitan argi utzi zuen PSNk zer egingo duen: Nafarroako egonkortasunaren izenean, UPNren alternantziak jai du eta PSNk UPN lagunduko du. Eta horrela, badirudi berriz dena lotua

geratzen dela, baina ez, ez dago horren argi. Aldaketa garaiak bizi dira Europa osoan, herritarrak haserre dira eta ez dago argi botoak nola joka dezakeen.

HUGO CHAVEZ-EN 14 urteko agintaldiaren balantzea egitean, ezinbestean azpimarratu behar dira berdintasunaren ikuspegitik herritar pobreen alde egindako lana eta izandako lorpen handiak. Mundu ia osoak aitortu dio hori. Chavismoari eta petrolioari esker, barne garapenaren eta latindar Amerikaren integrazioaren akuilu eta erreferentzia bilakatu da Venezuela.

Ezin da Chavezen figura aztertu, Hegoamerikako azken 60 urteetako historia kontuan hartu barik. Alde horretatik, berak Venezuela puntufijismoaren –AD eta COPEIren 1958ko itun historikoa– atzaparretatik libratu zuen 1999an, herrialdea agintariaren ustelkeria, lapurreta eta AEBen menpekotasunetik askatuz. Ez guztiz, ordea, ekonomian AEBkiko duen lotura handia da, hari saltzen baitio ekonomia eta iraultza motorra den petrolio gehiena. Gerra Hotzaren ostean, Francis Fukuyamaren historiaren amaiera

garapenean diren herrialde askorentzat eredu bilakatu da.

Barne mailan, ordea, iraultza bolivariarrak arazo handiak izan ditu eta izango ditu. Ekonomikoki ez du lortu petrolioaren dependentzia gutxitzea, eta honen indarra ekonomiaren dibertsifikaziora bideratzea. 14 urtetan ezin da asko egin maila horretan, baina norabide arrastorik ere ez da ikusten.

Bestetik, sendotasunez aurrera egiteko, badirudi ezinbestekoa izango dela Venezuelako herritarren zatiketa baretzea eta oposizioko sektoreak aldaketara erakartzeko. Bide horretan, orain arteko arazo ideologikoak are eta sendoago egingo dira. Lan nekezena izango da asmatzea ea nola egin behar den XXI. sozialismoa –zutoin horrek zutik jarraitzen badu bederen–. Ea posible ote den berau gauzatzea egungo Venezuelaren botere errepublikarra eta demokrazia errepresentatiboaren oinarriak mantenduz. Finean, ea testuinguru kapitalista batean, eta AEBn atarian, halako iraultzarik egitea posible ote den.

Historian era guztietako kasuak daude, batzuetan liderra desagertzean dena hondoratzen da eta, besteetan, batez ere mugimenduak oinarri sendoak dituenen, indarrak askatu eta prozesua bera indartzen da. Badirudi iraultza bolivariarrak badituela aurrera jarraitzeko baldintzak eta oinarriak, baina Chavezen tamainako liderrik

gabe ezin berdintsu izan. Garai berriaren lehen froga gogorra apirilaren 14ko lehendakaritzarako hauteskundee-tan izango da. ■

Igandeko UPNren kongresuko emaitzen esku egongo da Barcinaren dimisio eskaera

hartan, kapitalismo garaile eta guztiz ahaltsuaren aurrean alternatiba eta erreferentzia izan da Venezuela eta hori bera bakarrik ez da meritu gutxi. Arrakasta mugatu eta kontraesan askorekin, baina

